

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

- **1.2 FASEAREN EMAITZA (PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA)**
- **3.FASEA EGITEKO DEIALDIA (ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA)-**
- **EUSKARA PROBA EGITEKO DEIALDIA.**

**Lehenengo.-** Mekanikari-Elektrikari Balioaniztuna Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren **1.2. Faseari - Proba Profesional Praktikoa dagozkion emaitzak** argitaratzen dira (1. ERANSKINA).

**Bigarren.-** Interesatuak egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte 3 lanegunez, zerrenda argitaratu den eguna barne (2024ko urtarrilaren 29, 30 eta 31an) horretarako prestatutako inprimakia bete eta aurkeztuta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, Fernando Sasiain kalea 7, 9:00etatik 13:00ak arte.

Langileak Hautatzeko Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, behin betiko emaitzak argitaratuko ditu [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, 2024ko urtarrilaren 5etik aurrera.

**Hirugarren.-** **GAI izan diren hautagaiei dei egiten zaie 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera joan daitezen.**

**2024ko otsailaren 9an izango da, OTEIC Taldearen bulegoetan, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia, 2.ERANSKINEAN adierazten den ordenaren arabera (deialdiaren ordua).**

Oinarrieta aurreikusitakoaren arabera, hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, haien ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Proba gainditzeko gutxienez 12 puntu lortu behar dira, 20 puntutik.

Hautagaiei dei bakarra egiten zaie eta jatorrizko NAN, pasaporte edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

#### **Laugarren.- 4.Faseari buruzko informazioa - Merituen balorazioa:**

Hautagaiek Merituen Balorazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute (lan esperientzia profesionala), 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera deitzen zaien egunean (**baldin eta onarpen-prozesurako aurkeztutakoaz gain informazio gehiago badute**).

Gogorarazten da, Deiaidiaren oinarrien arabera, Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko dela lan-esperientzia profesionala.

#### **Bosgarren.- Euskarazko merituari buruzko proba (idatzizko proba) egiteko deialdia egiten da.**

#### **Hirugarren puntuan adierazitako 3. Faseko (Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala) egun eta ordu berean eta leku berean egingo da proba.**

Ez dute proba hori egin beharrik izango eta atal honetarako ezarritako gehieneko puntuazioa lortuko dute, onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean gutxienez Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren araberrako B1 maila edo baliokidea den Euskara maila behar bezala egiaztatua duten hautagaiek.

Onarpen Eskaeran adierazi duten hautagaiek baino ezingo dute proba egin.

Gogorarazten da Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

**Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:**

- Web orria: <https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/>
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)

Stua.: Langileak Hautatzeko Batzordea  
Donostia, 2024ko urtarrilak 29

**1.ERANSKINA:****1.2 Fasearen emaitza - Proba Profesional Praktikoa.**

---

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.1 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 21/30 puntu)
ME23-002	28,20
ME23-004	EZ DU GAINDITU

**2.ERANSKINA:**

**3.Fasea – Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia ).**

---

IDENTIFIKAZIO KODEA	EGUNA	ORDUA
ME23-002	2024/02/09	14:00